

**2016KO UZTAILAREN 28AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO
BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita zortzia.

HILABETEA: Uztaila.

URTEA: Bi mila eta hamaseia.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak hamar gutxi.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Aitor Aldasoro Iturbe.

BILDUAK: Leire Artola Ugalde

Malu Valles Fernandez

Koldo Agirre Mujika

Miren Amaia Barandiaran Velez de Mendizabal

Santiago Urdampilleta Dos Santos

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2016ko ekainaren 30eko akta onartzea.

2016ko ekainaren 30eko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- OBRAK KONTRATATZEA: baldintza plegua eta deialdi publikoa:

a.- Oriako Pasealekuko igogailua:

Ezagutzera eman da hirigintza batzordearen proposamena, hau da: Ezkiaga auzoko frontoian igogailu publikoa jartzeko obrak kontratatzeko baldintza plegua onartzea eta deialdia publikoa egitea, GAOean iragarkia argitaratuz.

Baldintza pleguaren xehetasun nagusiak hauek dira:

1.- *Prozedura:* irekia publizitatearekin

2.- *Izapidetzea:* arrunta

3.- *Lizitazio prezioa:* 77.903,83 € BEZ kanpo, 94.263,63 € BEZ barne.

4.- *Egikaritze epea:* 3 hilabete.

5.- *Kaudimen ekonomiko eta finantziario:* ez da eskatzen.

6.- *Kaudimen teknikoa:*

- Obrak gauzatzeko erabiliko diren makina, material eta ekipamendu teknikoen adierazpena, dagokion egiaztagiriak atxikita. Halaber, horien dedikazioa erabatekoa, partziala edo aholkularitzakoa izango den adierazi beharko da (II. ERANSKIN-EREDUA BETEZ).
- Jarraian adierazten diren ziurtagiri GUZTIAK izatea:

1. ISO 9001 ziurtagiria, (**Kalitatea Kudeatzeko Sistema**).
2. ISO 14001 ziurtagiria (**Ingurumen arloko Kudeaketa Sistema**).
3. OHSAS 18001 ziurtagiria, (**Laneko Segurtasun eta Osasun arloko Kudeaketa Sistema**).

- Halaber, obren egikaritzean parte hartuko duten teknikarien izen-zerrenda gaineratu beharko da derrigorrez, haien kalifikazioa eta esperientzia profesionala egiaztatzeko agiriak atxikiz. Gainera, langile horien lanaldia erabatekoa, partziala edo aholkularitzakoa den (II. ERANSKIN-EREDUA BETEZ) adierazi beharko da.
- Obrako Buru modura jardungo duen pertsonaren izendapena ere adierazi egin beharko da derrigorrez. Horretarako, obrako buru modura jardungo duen pertsonaren eta proposatzen diren gainerako langileen curriculum vitae eta eskatzen diren titulazioen agiriak aurkeztu beharko dira.

6.- *Klasifikazioa*: J Taldea, 1 Azpitaldea, 1 kategoria; C Taldea, 4 Azpitaldea, 1 kategoria. Ez da eskatzen, baina aurkeztuko balitz kaudimen profesionala ordezkatzeko luke, obra arduradunaren izendapena izan ezik.

7.- *Espedientea*: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.net). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

8.- *Proposamen eredua*: Baldintza Administrazioen pleguaren azaltzen dena.

9.- *Aurkezteko epea, lekua eta ordua*: Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 26 egunetan.

10.- *Adjudikazio irizpideak*:

- Proposamen ekonomikoa: 50 puntu.
- Memoria teknikoa: 40 puntu.
- Euskera: 5 puntu.
- Hobekuntzak: 5 puntu.

11.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua*: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunetan eta orduan egingo da.

12.- *Aurkeztu beharreko agiriak*: Lizitatzailerik administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Idazkari andreak ohartarazi du, enpresek "Bai Euskarari" edo "Bikain" agiriak izateak esleipen irizpideetan baloratzea ez dela zuzena, irizpide horrek ez duelako kontratuaren helburuarekin zer ikusirik.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Santi Urdampilleta (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) jaunak adierazi du bizilagunek hartutako erabakiaren alde daudela eta lehenbailehen egiteko eskatu du. Lehengoaren "*ebaki eta erants*" besterik ez da. Beraien jarrera abstentzioarena izango dela dio.

Koldo Agirre jaunak (BILDU) adierazi du, beraien jarrera aurkakoarena izango dela, lehen proiektatutakoa ere egiteko modukoa zelako.

Aitor Aldasoro Alkate jaunak (EAJ): “Aurrekoarekiko aparejadorearen eta URAREN aurkako txostena izateak eta oraingoan, aldiz, ez “*ebaki eta erantsi*” horretatik aldendu egiten da.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 3 (EAJ/PNV,)

Aurkako botoak: 2 (BILDU)

Abstentzioak: 1 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Horren ondorioz, gehiengo soilarekin onartu da, Ezkiaga auzoko frontoian igogailu publikoa instalatzeko obrak kontratatzeke baldintza plegua eta deialdia publikoa egitea.

b.- Nekolalde kalea berrizatzeko obrak:

Ezagutzera eman da hirigintza batzordearen proposamena, hau da: Nekolalde kalea berriro urbanizatzeko obrak kontratatzeke baldintza plegua onartzea eta deialdia publikoa egitea, GAOean iragarkia argitaratuz.

Baldintza pleguaren xehetasun nagusiak hauek dira:

1.- *Prozedura*: irekia publizitatearekin

2.- *Izapidetzea*: arrunta

3.- *Lizitazio prezioa*: 368.329,35 € BEZ kanpo, 445.678,51 € BEZ barne.

4.- *Egikaritze epea*: 5 hilabete.

5.- *Kaudimen ekonomiko eta finantziario*:

Lizitzaile edo hautagaiaren urteko negozio-bolumena izango da, amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez kontratuaren balio estimatua halako bat eta erdi izan beharko dena gutxienez. (552.494,02 €, kontratu honen kasuan).

Lizitzaile edo hautagaiaren negozioen urteko bolumena bere urteko kontuen bidez (onartuak eta Merkataritza Erregistroan jasoak) egiaztatuko da, enpresaria erregistro horretan balego izen emanda, eta bestela, inskribatuta egon behar dueneko Erregistro Ofizialean jasota dauden kontuen bidez. Merkataritza Erregistroan inskribatu gabeko enpresari indibidualek beren urteko negozioen bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuaren eta urteko kontuen bidez egiaztatuko dute.

6.- *Kaudimen teknikoa*:

- Kontratuaren xede den lanaren mota edo izaera bereko lanetan metatutako esperientzia, azken hamar urteetan egindako lanen zerrendarekin egiaztatuko dena, betiere, lan horiek kontratuaren xede den lanaren mota edo izaera berekoak eta obrak ongi egin izanaren ziurtagiriz bermatuak izanik. Gainera, gutxienezko betekizuna izango da lan handiena gauzatu duen urteko zenbateko metatua

kontratuaren balio estimatuaren parekoa edo % 70etik gorakoa izatea (334.258,89, kontratu honen kasuan).

- Obrak gauzatzeko erabiliko diren makina, material eta ekipamendu teknikoan adierazpena, dagokion egiaztagiriak atxikita. Halaber, horien dedikazioa erabatekoa, partziala edo aholkularitzakoa izango den adierazi beharko da (II. ERANSKIN-EREDUA BETEZ).
- Jarraian adierazten diren ziurtagiri GUZTIAK izatea:

4. ISO 9001 ziurtagiria, **(Kalitatea Kudeatzeko Sistema)**.
5. ISO 14001 ziurtagiria **(Ingurumen arloko Kudeaketa Sistema)**.
6. OHSAS 18001 ziurtagiria, **(Laneko Segurtasun eta Osasun arloko Kudeaketa Sistema)**.

- Halaber, obren egikaritzean parte hartuko duten teknikarien izen-zerrenda gaineratu beharko da derrigorrez, haien kalifikazioa eta esperientzia profesionala egiaztatzeko agiriak atxikiz. Gainera, langile horien lanaldia erabatekoa, partziala edo aholkularitzakoa den (II. ERANSKIN-EREDUA BETEZ) adierazi beharko da.
- Obrako Buru modura jardungo duen pertsonaren izendapena ere adierazi egin beharko da derrigorrez. Horretarako, obrako buru modura jardungo duen pertsonaren eta proposatzen diren gainerako langileen curriculum vitae eta eskatzen diren titulazioen agiriak aurkeztu beharko dira.

6.- *Klasifikazioa*: G Taldea, 4 Azpitaldea, 3 kategoria; E Taldea, 1 Azpitaldea, 3 kategoria. Ez da eskatzen, baina aurkeztuko balitz kaudimen profesionala ordezkatzeko luke, obra arduradunaren izendapena izan ezik.

7.- *Espedientea*: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoan pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.net). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

8.- *Proposamen eredia*: Baldintza Administrazioen pleguaren azaltzen dena.

9.- *Aurkezteko epea, lekua eta ordua*: Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 26 egunetan.

10.- *Adjudikazio irizpideak*:

- Proposamen ekonomikoa: 50 puntu.
- Memoria teknikoa: 40 puntu.
- Euskera: 5 puntu.
- Hobekuntzak: 5 puntu.

11.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua*: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

12.- *Aurkeztu beharreko agiriak*: Lizitatuak administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Santi Urdampilleta (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) jaunak adierazi du beraien aldetik ez dagoela inolako arazorik aurrera egiteko. Kalea hobetzen da eta bizilagunen iritzia errespetatzen bada, askoz hobe.

Koldo Agirre BILDUko ordezkari jaunak, bizilagunekin izandako bilera nola joan zen galdetu du.

Leire Artola EAJko zinegotziak erantzun dio esanez orokorrean ondo joan zela.

Aitor Aldasoro Alkate jaunak esan du bilera, bizilagunek eskatutakoa zela eta saiakera egin dela garajeen irteera eta maniobrak egiteko distantziak neurtzen eta simulazioak egiten.

Koldo Agirre jaunak (BILDU), zerbaitetan hasi baino lehen probak egitea beharrezkoa jotzen du, bi norabidekoa den kale horretan berrikuntzak egitea ez delako hain erraza.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

Horren ondorioz, aho batez onartu da, Nekolalde kalea berriro urbanizatzeko obrak kontratatzeako baldintza plegua eta deialdia publikoa egitea.

3.- OBRAK KONTRATATZEA: bide asfaltaketa lenen esleipena.

Ezagutzera ematen da, 2016ko uztailaren 12ko Kontratazio Mahaiaren proposamena:

“AURREKARIAK

1.- 2016ko maiatzaren 26an, Gobernu Batzordeak erabaki zuen prozedura irekiaren bitartez, bide asfaltaketa lanak kontratatzea, horretarako baldintza plegua onartuz. Lizitazio prezioa, 86.412,37 €tan gehi BEZ, finkatu zen eta egikaritze epea 2 aste.

2.- Deialdia, 2016ko ekainaren 1ean argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko 26 eguneko epean, lizitazioa lau enpresa aurkeztu ziren.

3.- Dokumentazio administratiboa kalifikatu ondoren, lizitzaile guztiak aurkeztu zuten pleguan eskatutako dokumentazioa.

4.- 2016ko uztailaren 1ean, B kartazala (dokumentazio teknikoa) ireki zen eta aztertu ondoren, lizitzaileek lortutako puntuazioa honako hau izan zen:

Enpresa	A).- Lanen planteamendua, antolaketa, obraren epeakako plangintza 20 puntu	B).- Lanek erabiltzaileei, zirkulazioari, aparkalekuei eta abarrengan duten eraginaren analisia eta arazo horiek gutxitu edo konpontzeko egindako proposamenak” 20 puntu	Puntuak guztira /
Asfaltos	20	20	40 P

Urretxu, S.A			
Asfaltia , S.L	0	0	0 P
Orsa, S.L	15	20	35 P
Probisa	5	5	10 P

2016ko uztailaren 12ko datarekin, C kartazala (proposamen ekonomikoa) ireki da,

	LIZITATZAILEAK	PREZIOA <i>BEZ GABE / SIN IVA</i>	EPEA 2 aste
1	ORSA, S.L.	81.227,69 €	1,5 aste
2	ASFALTIA	95.053,73 €	2 aste
3	ASFALTOS URRETXU	82.072,30 €	aste bete
4	PROBISA	83.997,72 €	2 aste

Eskaintza ekonomikoak pleguak dioen moduan baloratu ondoren, lizitatzaleek lortutako puntutazioa honako hau da:

	LIZITATZAILEAK	Memoria teknikoa	Prezioa	GUZTIRA
1	ORSA, S.L.	35	60	95
2	ASFALTIA	0	0	0
3	ASFALTOS URRETXU	40	59	99
4	PROBISA	10	57	67

Beraz, Kontratazio Mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Bide asfaltaketa lanak ASFALTOS URRETXU S.A.ri esleitzea, 82.072,30 €ko prezioan gehi 17.235,18 € (BEZ). Egikaritze epea aste betekoa izango da.

Bigarren. Adjudikaziodunari adieraztea, hamar laneguneko epean ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar duela:

- *Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda egotea eta zerga betebeharretan eta gizarte segurantzaren eguneratuta egotearen agiriak.*
- *4.103,62 €ko behin betiko fidantza eratzea.*
-

Hirugarren. *Adierazitako dokumentazioa aurkeztutakoan, bost laneguneko epean, behin betiko esleipena egingo da, horretarako Alkateari baimena emanaz. Jarraian kontratu administratiboa sinatu beharko da.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute eta aho batez onartu dute.

4.- ZERBITZUAK KONTRATATZEA: baldintza plegua eta deialdi publikoa egitea hizkuntza errefortzua eskaintzeko zerbitzua kontratatzeko.

Ezagutzera eman da 2016ko uztailaren 20ko hizkuntza politika batzordearen proposamena Beasainen hizkuntza errefortzua behar duten haurrentzako zerbitzua kontratatzeko, baldintza plegua onartzea eta deialdia publikoa egitea, GAOean iragarkia argitaratuz.

Baldintza pleguaren xehetasun nagusiak hauek dira:

- 1.- Prozedura: irekia publizitatearekin
- 2.- Izapidetzea: arrunta
- 3.- Litzitazio prezioa: 40.500,00 € gehi BEZ urtero
- 4.- Espedientea: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoaren pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.net). Zehazki kontratatzailearen profilean.
- 5.- Proposamen eredia: Baldintza Administrazioaren pleguaren azaltzen dena.
- 6.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira. Proposamenak aurkezteko epemuga, 2016-09-05a izango da, 14,00 arte.
- 7.- Kaudimen ekonomikoa:
 - Arrisku profesionalagatik ordaindu beharreko kalte-ordainen aseguruia, gutxienez 601.012,10€koa edo kasua bada, kontratatzeko konpromisoa esleipenduna izanez gero.
- 8.- Kaudimen profesional aedo teknikoa:
 - Enpresariaren eta enpresa zuzendaritzaren titulazio akademikoak eta zehazki kontratua exekutatu behar dutenena, hau da:
 1. Gizarte edo Hezkuntzako gradua.
 2. C1 mailari dagokion euskara gaitasun agiria.
- 9.- Adjudikazio irizpideak:
 - Proposamen ekonomikoa: 30 puntu
 - Jarduerei buruzko memoria: 70 puntu.

- Hizkuntza errefortzu zerbitzua emateko proposatutako jarduerak: 45 puntu
- Titulazioa: 10 puntu (Euskal Filologia, Haur edo Lehen Hezkuntzako gradua edo Pedagogia)
- Kontratuaren helburuak egikaritzeko bitarteko pertsonalen antolaketa eta ordutegia: 15 puntu.

10.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

11.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzaleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) kexa azaldu du, dokumentazio bakarrik euskaraz pasa zitzaielako eta aurkeztu delako. Errespetu falta dela dio eta horren ondorioz, aurka bozkatuko duela.

Amaia Barandiaran BILDUko zinegotzi andrea aurka azaldu da proposamenarekiko. Gaia behar bezala lantzeko, gazteria batzordetik ez dela pasatu dio eta ludotekan beharra ikusten dutela adierazi du, aisia euskaraz landu ahal izateko. Bere ustetan, haurrentzako hizkuntza errefortzua ez da aisia esparrutik banandu behar.

Aitor Aldasoro Alkate jaunak, hizkuntza politika batzordetik pasatu dela dio, kontratatzen den zerbitzuak hizkuntzarekin zer ikusia duelako eta orain kontratatu nahi den zerbitzua ez dela ludoteka zerbitzuaren bitartez ematen zen berdina. Lehen izen-ematea irekia zen eta orain ez.

Amaia Barandiaran BILDUko zinegotzi andreak galdetu du nola integratuko diren euskaldunen lagun talde batean, kontratu nahi den zerbitzua bakarrik eskaintzen bazaie euskararekiko gabezia dutenei.

Aitor Aldasoro Alkate jaunak (EAJ): "Kontratuaren amaierarekin batera gaztelekua zerbitzua ere eten egin da, jarri genituen irizpide eta helburuak bete ez direlako.

Amaia Barandiaran BILDUko zinegotzi andreak: "Garbi dago erabat ezberdin ulertzen dugula ludoteka eta gaztelekuaren edukia zein den eta orain kontratatzea proposatzen duzen zerbitzuak ez ditu ordezkatzen beste bi horiek. Hezkuntza oso esparru zabala eta orokorra da eta esparru horretan aisiak ere badu bere garrantzia. Udal gehienetan ludotekak kudeatzen dira."

Aitor Aldasoro Alkate jaunak (EAJ): "Orain kontratatzea proposatzen den zerbitzuan, nahiz eta hizkuntza izan helburu nagusia, hezkuntzak ere beti izaten du bere presentzia. Ostikoka ez dituzte tratatuko!.

Amaia Barandiaran BILDUko zinegotzi andreak: "Zerbitzu hori dela euskaldun petoak ateratzen badira, oso ondo, baina helburua beste bat izan beharko litzateke. Ludoteka eta gazteleku zerbitzuaren bidez, aisialdiko hezkuntza irakasteaz gain, garapen emozionala eta gizarteratzea ere landu egiten dira. Euskara tresna bat besterik ez da, baina ez helburu nagusia.

Aitor Aldasoro Alkate jaunak (EAJ): “Guk hizkuntza erreforatzeko zerbitzua eskaini nahi du. Nahiz eta eskolan D eredia jarraitu, kanpotik datorrenak ez du erraztasunik euskaraz bizitzeko. Ikasturte baterako eta beste urte betez luzagarria izango den, froga bat da. Ikastetxeetatik 250 ume dituztela esaten digute.”

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), eskatu du beste baterako dena elebietan pasatzeko.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 3 (EAJ)

Aurkako botoak: 3 (BILDU, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Bozketa errepikatu egin da eta emaitza berdina denez, Alkatearen kalitate botoarekin gaia onartu egin da, hain zuzen ere, hizkuntza errefortzua behar duten haurtzako zerbitzua kontratatzeko, baldintza plegua onartzea eta deialdia publikoa egitea.

5.- ZERBITZUAK KONTRATATZEA. Beasaingo Udalaren eta bere erakunde autonomoen aseguru pribatuak esleitzea.

Ezagutzera eman da, 2016ko uztailaren 21eko Kontratazio Mahaiaren proposamena:

“AURREKARIAK

I.- Gobernu Batzordeak 2016ko ekainaren 30ean erabaki zuen Beasaingo Udalaren eta bere Organismo Autonomoen aseguru pribatu ezberdinak prozedura irekiaren bitartez kontratatzeko prozedura martxan jartzea. Deialdi publikoa egin zen 2016ko uztailaren 4an GAOean iragarkia argitaratuz.

II.- Proposamenak aurkezteko epea, 2016-07-19an, 14,00etan amaitu zen. Epe horretan aseguru etxe hauek aurkeztu dute proposamena:

ENPRESAK	Erregistro sarrera	Epea
SEGUROS LAGUN ARO, S.A.	2016-07-19 3163 zenbakia	Epe barruan
MAPFRE ESPAÑA Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A. y MAPFRE VIDA, S.A. de Seguros y Reaseguros sobre la Vida Humana, S.A.	2016-07-19 3170 zenbakia	Epe barruan

III.- Lizitatzailleek aurkeztutako A kartazala ireki eta kalifikatu ondoren:

- MAPFRE ESPAÑA Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A. y MAPFRE VIDA, S.A. de Seguros y Reaseguros sobre la Vida Humana, S.A.: lizitatzailleak ahalmena eta kaudimena betetzen duenaren agiria aurkeztu du.
- SEGUROS LAGUN ARO, S.A.: lizitatzailleak ahalmena eta kaudimena betetzen duenaren agiria aurkezteaz gain, Kontratisten Erregistro Ofizialeko agiria ere aurkeztu du.

IV.- 2016ko uztailaren 21ean, ekintza publikoan, "automatikoki baloratuko diren esleipen irizpideei" buruzko B kartazala ireki da eta emaitza ondorengoa izan da:

Lizitazio prezioa **1. zatia (kalteak ondasunei)**: urteko 45.000,00 €

	LIZITATZAILEAK	PRIMA GUZTIRA	HOBKUNTZAK Frankizia orokorra	HOBKUNTZAK Matrikulak irakurtzeko kamarak
1	MAPFRE	38.724,00 €	0 €	0 €
2	LAGUN ARO	41.433,72 €	0 €	0 €

Lizitazio prezioa **2. zatia (erantzukizun zibila)**: urteko 30.000,00 €

	LIZITATZAILEAK /	PRIMA GUZTIRA	HOBKUNTZAK Ezbehar bakoitzeko frankizia	HOBKUNTZAK Ezbehar bakoitzeko aseguratutako muga	HOBKUNTZAK Biktima bakoitzeko azpi-muga
1	MAPFRE	25.378,12 €	150,00 €	5.000,00 €	800,00 €
2	LAGUN ARO	29.900,00 €	150,00 €	4.000,00 €	600,00 €

Lizitazio prezioa **3. zatia (ibilgailuak)**: urteko 6.000,00 €

	LIZITATZAILEAK	PRIMA GUZTIRA	HOBKUNTZAK
1	MAPFRE	5.929,18 €	Bai osotasunean
2	LAGUN ARO	5.911,23 €	Bai osotasunean

Lizitazio prezioa **4. zatia (erraldoi eta buruhandiak)**: urteko 700,00 €

	LIZITATZAILEAK	PRIMA GUZTIRA
1	MAPFRE	540,71 €
2	LAGUN ARO	477,96 €

Aurkeztutako eskaintzen balorazioa egin ondoren, lizitatzailleek lortutako puntuazioa ondorengoa da:

LOTE: 2 (R.C)		
OFERTA ECONÓMICA	MAX. PUNTUACIÓN	PUNTOS
		70,00

			VALORACIÓN DE MEJORAS (LOTE 2)								TOTAL PUNTOS OFERTA A LOTE: 2	
			FRANQUICIA GENERAL				MEJORA EN LÍMITES ASEGURADOS					
			250 €	200 €	150 €	100 €	SIN FRANQUICIA	4.250.000 € siniestro y sublímite 670.000	4.500.000 € siniestro y sublímite 770.000	5.000.000 € siniestro y sublímite 800.000		
COMPAÑÍA SEGUROS	OFERTA	PUNTOS	PUNTOS				PUNTOS					
MAPFRE	25.378,12	70,00			7,50					15,00		92,50
LAGUNARO	29.900,00	59,41			7,50							66,91

LOTE: 3 (VEHÍCULOS)		
OFERTA ECONÓMICA	MAX. PUNTUACIÓN	PUNTOS
		70,00

			VALORACIÓN DE MEJORAS (LOTE 3)								TOTAL PUNTOS OFERTA A LOTE: 3
			Condición de Tercero para colisiones entre sí y al patrimonio municipal		Asunción de incendio en motos		Asunción de robo en motos				
			PUNTOS				PUNTOS				
COMPAÑÍA SEGUROS	OFERTA	PUNTOS	PUNTOS				PUNTOS				
LAGUNARO	5.911,23	70,00	15,00	7,50	7,50						100,00
MAPFRE	5.929,18	69,79	15,00	7,50	7,50						99,79

LOTE: 4 (GIGANTES Y CABEZUDOS)		
OFERTA ECONÓMICA	MAX. PUNTUACIÓN	PUNTOS
		70,00

			NO SE CONTEMPLAN MEJORAS							
COMPAÑÍA SEGUROS	OFERTA	PUNTOS								
LAGUNARO	477,96	70,00								
MAPFRE	540,71	61,88								

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Aseguru pribatuen 1 eta 2 zatiak, hau da, higiezin eta higigarriei kalteak eta erantzukizun zibila, ondorengoari esleitzea: MAPFRE ESPAÑA Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A. y MAPFRE VIDA, S.A. de Seguros y Reaseguros sobre la Vida Humana, S.A..

Esleipen prezioa ondorengoa da:

- 1. Zatia: **38.742,00 €.**
- 2. Zatia: **25.378,12 €.**

Kontratua ematearen ondorioz sortzen diren gastu eta zerga guztiak egongo dira sartuta prezioan.

Esleipena, onartutako plegu eta 2016-02-19an aurkeztutako eskaintzaren arabera izango da.

Bigarren. 3 eta 4. zatiak, hau da, ibilgailuak eta erraldoi eta buruhandien osasun asistentzia, SEGUROS LAGUN ARO, S.A.ri esleitzea.

- 3. Zatia: **5.911,23 €.**
- 4. Zatia: **477,96 €.**

Kontratua ematearen ondorioz sortzen diren gastu eta zerga guztiak egongo dira sartuta prezioan.

Esleipena, onartutako plegu eta aurkeztutako eskaintzaren arabera izango da.

Hirugarren. Kontratuen iraupen epea bi urtekoa izango da, 2016-09-01etik kontatzen hasita.

Laugarren. Esleipendunei ebazpen honen berri ematea, adieraziz kontratua sinatu ahal izateko ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar dutela:

MAPFRE

- Eskritura
- Ordez kariaren ahalmena eta NA
- Administrazioarekin kontratatzeke debekua ez izatearen agiria.
- Gizarte Segurantzaren eta zerga betebeharraren eguneratuta egotearen agiria.
- Lizitatzailerik edo izangaiaren urteko negozio bolumena, amaitutako azken hiru urteetan izandako gehienezko bolumen urtearekin alderatuta, gutxienez kontratuaren aurreikusitako balorearen aldi bat eta erdi izan beharko du bere iraupena urtebetekoa baino handiagoa ez denean, eta kontratuaren iraupena urtebete baino handiagoa bada, gutxienez kontratuaren urteko batez bestekoaren aldi bat eta erdi. Plegu administratiboan adierazitako moduan aurkeztuko da.
- Azken bost urteotan emandako zerbitzuen zerrenda.
- **6.412,01 €**ko behin betiko fidantza.

SEGUROS LAGUN ARO, S.A.

- *Gizarte Segurantzaren eta zerga betebeharretan eguneratuta egotearen agiria.*
- *Declaración de no estar incurso en causas para contratar con la Admon.*
- **638,92 €**ko behin betiko fidantza.

Bosgarren. Adierazitako dokumentazioa aurkeztutakoan, bost laguneko epean, behin betiko esleipena egingo da, horretarako Alkateari baimena emanaz. Jarraian kontratu administratiboa sinatu beharko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, proposamena aho batez onartu da.

6.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak eta hamarrean amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.